

# ILUSIOAREN ILUSIOAZ

Eider Rodríguez Martín<sup>1</sup>

## Abenduak 20

Gaur hiru urte bete dira Beñardo hil zenetik. Alta, bere zimiko amoltsuen gazi-geza somatu dut ipurmasailean sukaldera sartu orduko. Noizbait, zimikoen anbiguotasuna nahiago izan zuen muxu eta laztanek duten zentzu bakar eta unibertsalaren ondoan. Izan ere, gaitasun berezi bat zuen gauzak esan gabe ulertzera emateko. Maddik hemezortzi urte bete zituenean adibidez, urrezko belarritako batzuk aurkitu zituen bere gelako mesanotxean. Hura bai poza! Aitak ez zuen egundo onartu berak egindako opari bat zirenik, alderantziz, alabaren aurrean errieta eman zidan dirua kontrolik gabe zahutzeagatik.

Gaur hiru urte bete dira Beñardoren bihotza gelditu zenetik, bere azken hatsa hotzarekin nahastu zenetik. Eta hiru urte dira etxeko beheko sua pizteko ahaleginik egiten ez dela, komuneko itotea inork konpontzen ez duela, ohearen ezker hemisferioan biztanlerik ez dagoela. Hiru urte dira bakarrik nagoela.

## Abenduak 21

Atzo hilerrian izan nintzen. Iraingarriak otu zitzaizkidan koloretako loreak. Harri heze gaineko goroldioaren dantza makabroa zen kanposantuan diskordantziarik sortzen ez zuen bakarra. Han sentitutakoak, goroldioa nostalgia irudikatzeke munduko landarerik egokiena dela berrestera eraman ninduen. Ez naiz sekula itzuliko.

Hilerrian nengoela gizon bat hurbildu zitzaidan. Beñardoren alarguntsa nintzenez galdetu zidan. Nik, baietz. Gaztetako lagun bat zela esan zidan, biajantea, ahal zuen guztietan joaten zela Beñardori konpainia egitera, edo, hobe esanda, esan zuen haurtzarora duela gutxi abandonatu duenaren begiradaz, Beñardok hari konpainia egin ziezaion. Julian da bere izena.

## Abenduak 23

Maddik hots egin dit. Gabon gauean haienean afaltzeko. Gripeak hartuta nagoela eta ezetz. Bihar etorriko zait bisitan. Neska ona da baina ez dut haiekin afaldu nahi. Ez dut gogorik.

<sup>1</sup> Erreterian jaioa, duela 23 urte. Erreteriarako Oorereta ikastolan egin zituen ikasketak U.B.I. burutu arte, 1995. urtean. Historia eta Harreman Publikoetak ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean egin ditu.

Argitaratzen duen lehen lana dugu honako hau eta berarekin Ereintza Elkartearen Ipuin Lehiaketako 3 sariak bereganatu ditu: Lehen saria, 25 urtetik beherako eta Erreteriarako lehen idazlearen saria. Epaimahaikideak: Juan Garzia eta Iñaki Aldekoa.

## Abenduak 24

Gaur ez naiz Maddik alde egin duenerarte ohetik jeiki. Gripeak hartuta nagoela sinistarazteko ez dut gehiegi antzestu beharrik izan, makilajerik ez jartzea eta ohean sarturik egotea nahikoa izan dira ene alaba engainatzeko. Zahartzarora gaisotasun kronikoa denaren seinale.

## Abenduak 25

Orduak lehiotik begira iragaitea gustatzen zait. Maiz ez dut kristaletik harantzago so egiten, baizik eta nire burua gainazal honetan begiratzuz entretenitzen naiz, argi-jokoen ilusioan galdurik. Eta ispiluez mendekatzen naiz, nire irudia leialtasun haundiegiz isladatzegatik, hainbat urteetan izandako enkontruak nahikoak ez balira bezala haien konplizitatea irabazteko. Ispilu trahidoreak. Leihoko kristalak ordea, denboraren joanak aitzurtutako bisaia samurragoa bilakatzen du, ezpainateko pitzadurak difuminatuz, inoiz gardena izandako begiradari lausoa kenduz. Eta bertan gelditzen naiz, bizitzaren lekuko soil.

Arratsean Maddik deitu dit eguberri on opatu eta osatu naizenez galdetzeko. Baietz esan diot, nahiz eta gripearrekin nengoela esan nionean baino eriago sentitu. Ustekabean harrapatu dut nire burua nostalgiaren magalean kulunkatzen. Oraingo honetan bere sareetatik irtetzea zaila izango da. Igertzen dut.

## Abenduak 26

Leihotik begira nengoela hilerriko gizona ikusi dut, bizkarrez. Haatik, bera zela jakin dut. Arrarora da Beñardok hari buruzko ezer ez aipatu izana. Are bitxiagoa oraindik gaztetako laguna izanik. Izan ere, nahiz eta hitz gutxikoa izan, azken urteotan asko mitzatzen zen gaztaroaz eta Maddik eta biok gogoz dakizkigu hari entzundako pasadizuak, umetako bihurrikeriak eta gerra garaiko ibilerak. Begiei zerien bizitasunak gertaerok jazotako garaietara itzultzen zela salatzen zuen, eta, errealiteratu bueltan etortzen zenean indarberriturik ageri zen, gazteturik. Baina ez dut Julian izeneko inori buruzko ezer ere oroitzen.

Gaur, hala ere, ondo nago. Beñardo joan zenetik lehen aldia da bere izena idatzi eta oinazetik somatzen ez dudala. Badirudi egia dela denborak zauri guztiak orbaintzen dituela.

## Abenduak 27

Asaldatau egin naiz azken aste honetan idatzitakoa irakurritakoan. Atso zahar baten hitzak dirudite. Amorraturik pasa dut eguna. Ez dut beti kezuka ari diren atso zahar horien antzik eduki nahi, eta, ahal dudan heinean ebitatuko dut.

### Abenduak 29

Gaurko egunean nostalgiaren arrastorik ez. Leihotik begira nengoela elurra hasi du. Malutak, izotzezko lumak bailiran, kadentzia perfektuan gerturatzen zitzaizkion lurrari bere kolore arrearekin nahasteko. Leihoko kristala bereziki eskuzabala otu zait gaur, inoiz baino leunagoa itzuli baitit nire bisaiaren islada, begiradaren gardentasuna. Ohartu naizenerako zuruturik zegoen karrika eta hortxe ikusi dut Beñardoren lagun hori, Julian, bere ibili pausatuak zuriari birjintasuna lapurtzen. Beste garai batekoa dirudi, gizonetako eskuko erlojua eta kapela zeramatenekoa, ez jazkeragatik, fintasunagatik baizik. Edo, beste herrialde batekoa, arratsaldean tea edaten duten toki batekoaz, egoteko maneragatik, diot. Igerri zaio biajantea izan dela. Bapatean harekin hitz egiteko gogoia sentitu dut. Beñardori buruz hitz egiteko gogoia, baina ez naiz ausartu. Berriz ikusten dudanean deitu egingo diot.

### Abenduak 30

Aspaldian ez zuen gabonetan elurrik egiten. Ederra da leihotik ikusten dena. Gaur ere Julian ikusi dut, kalea gurutzatzen. Urrutiegiz zegoen eta horregatik ez diot deitu.

Arratsaldean Maddik hots egin dit bihar gauerako guztia prest dagoela esanez. Azkenean haien auzoko elkarte batean afalduko dugula, bestela etxea gehiegi zikintzen dela eta ez duela urteko lehen eguna garbiketa lanak egiten igarotahi. Berdin dio. Elkarteko sukalde industrialak edo bere etxe inpersonala. Berdin berdin.

### Urtarrilak 1

Atzo, afarirako bidean nindoala Julianekin egin nuen topo. Bera ere alabaren etxera zihoan, egunkari orrietan baldarki bildutako botila pare bat eskuarteant zituela. Urteek altxor bihurtutako edariak tentuz aukeratzeko irudikatzeak hunkitu egin ninduen eta berriz ere, haurtzarotik errekaskaturiko begirada antzeman nion. Une egokia iruditu zitzaidan kafea hartzeko gonbitea luzatzeko. Proposamena gogo onez hartu zuen. Uste dut.

Bestalde, afariari buruzko datu aipagarriak ez. Maddi eta Igorren arteko harremana agortuta dago nahiz eta nire alabak ezkontide perfektuaren traza antzeztea erabaki duen. Dirudienek, Igorren antzezteko gogoia ere agortu da honezkero. Beñardoren izena guztien ahotan ibili zen eta une batez etxean zegoela iruditu zitzaidan, ohean etzanda, sukarrarekin edo, ni afaritik noiz itzuliko zain...

### Urtarrilak 3

Bazkalostean Julian kafea hartzera etorri da eta bi orduz aritu gara berriketan. Hasiera batean urduri samar nengoan, ez ote zuen gauza arraroren bat pentsatuko baina solasean hasi orduko ohartu naiz berak ere Beñardori buruz hitz egiteko asmoa zuela. Eskola garaitan ezagutu omen zuen eta hogeita bi urtetararte lagun minak izan ziren. Ondoren, Julian Argentinara joan zen lan egitera eta bien arteko harremana guztiz eten zen. Hala ere, beti izan zuela gogoan eta duela hiru urte Madrilan izan zuela bere heriotzaren berri. Bere burua madarikatu zuela harremana berreskuratzen saiatu ez izanagatik. Eta bere burua madarikatu du marmar batean.

Joan denean zerbait gertatu da: leihotik begira gelditu naiz, Beñardori buruzko burutazio atseginetan murgildurik, Julian nola aldentzen zen ia ikusi gabe. Bapatean itzuli egin da eta esku mugimendu dotore batez agur egin dit... aldeztetik hari begira nengoela jakingo balu bezala. Gorritu egin naiz.



### Urtarrilak 5

Atzo ere Julian etorri zen. Kanpoan hotz handia zegoela eta hemen ondotik igarozenean hereneguneko kafeaz gogoratu zela. Gusto handiz hartu nuen bere bisita. Harekin nagoenean denborak beste dimentsio bat hartzen du eta nire bidaide akitua izatetik nire etsairik zuhurrena izatera igarotzen da. Gaur ere hemen izan da. Atzo ahaztutako atekiaren bila etorri da. Cabardina erazteko intentziorik ez zuela ikusita kafe bat hartzera gonbidatu dut. Irri egiten duenean begiak bi erreten

beltz bilakatzen zaizkio. Bihurrikeri bat egin berri duela dirudi. Bere bizitzaz mintzatu zait. Gazte-gaztetan ezkondu eta alaba bat izan zuen. Emaztea, alabak hamabost urte bete zituenean hil zen, auto istripu batean. Kolpe itzela izan zela biezat. Hemezortzi urterekin, alaba Euskal Herrira etorri zen ikasketak burutzera eta unibertsitateko irakasle batekin ezkondu zen. Mantso mintzatzen da, hitzak laztanduz bezala eta eskuez laguntzen da azalpenak ematerako orduan. Noizean behin kopetaruntz datorkion adats bat orrazten du, pazientzia bere bertutetako bat dela adierazi nahi balu lez, eta, emakume ugari erakarri dituen keinua dela otutzen zait.

### Urtarrilak 10

Gaurkoa egun ahaztezina izan da. Julianek aste guztian zehar aipatu dit tangoa dantzatzeko ikasi beharko nukeela, bera irakasteko prest zegoela. Esan eta egin. Bere diska maitatuena ekarri ditu eta egongela dantzaleku bihurtu dugu. Gustoko dut dantzan egitea. Beñardok behin esan zidan dantzan ikusi ninduenean maitemindu zela nirekin. Ahaztezina. Hasiara batean, gerritik heldu nauenean asaldatu egin naiz eta lasaitu arte ez naiz dantzaz gozatzen hasi. Maisu aparta da Julian eta gizon zoragarria.

Oso dantzari fina naizela esan dit eta gorritu egin naiz. Dantza saioa bukatuta, bere etxera abiatu da eta beti bezala leihotik begira gelditu natzaio. Eskailerak jeisten ari zeneko abagunea leihoko kristalean begiratzeko aprobeixatu dut, eta, aspaldiko partez konforme gelditu naiz eskainitako isladorekin. Irrifar egin dut.

Etxe atariko atea entzun eta berehala Julianen irudia kale elurtuan gora joaten ikusi dut. Itzuli eta agur egin dit. Lehenengo egunean bezalaxe.

### Urtarrilak 13

Dantza saioa bukatu ostean Julianek gabardina jantzi du. Nik, beti bezala, ateraino lagundu dut, eta, halako batean gerritik heldu eta muxu bat eman dit, ezpainetan. Muxu labur bat izan da, baina hezea. Oraindik dardarka ari naiz. Asko gustatu zait.

(...)

Goizaldeko ordu biak dira eta oraindik ez dut lo egitea lortu. Behin eta berriz berregin dut muxua eta geroz eta biziagoa sentitzen dut, geroz eta hurbilagoa. Beñardo datorkit burura eta iskin batetik begira imajinatzen dut, besoak gurutzatuta eta hankak piska bat zabaldurik,

baina, segituan ezabatzen dut bere irudia eta hilik dagoela pentsatzen dut. Ez dela esistitzen baina beti maitatu

ko dudala. Eta Julianen muxuaz oroitzen naiz eta sabelean txinaurriak ditudala dirudi eta izterrak igurtzen ditut hazkure antzeko hori desagertarazi nahian, baina txinaurriak tokiz aldatzen dira eta haien hankatxoak gorputz osoan zehar senti ditzaket, batez ere sabelaren beheko aldean, eta, ezin naiz geldirik egon. Biharko egunean pentsatzen dut. Muxurik emango ote didan, ni ez bainaiz ausartuko. Zerbait esango diot, hori bai.

### Urtarrilak 15

Atzo etxetik irten baino lehen Julianek bigarren muxua eman zidan. Nik, elurra gogotik ari zuela eta nahi izanez gero gaua etxean pasa zezakeela esan nahi nion baina ez zitzaidan ateratzen. Leihora atera nintzen eta bere ize- nez deitu nion. Garraisi egin nuen baina ez zuen entzuten. Orduan, zein bide hartzen zuen ikusi nuen eta bere atzetik joan nintzen baina eskailerak jeitsi nituenerako ez neukan begi bistan. Elurretan utzitako aztarnak ordea garbiak ziren eta abian jarri nintzen. Aldarte onean nengoan, urduri baina aldarte onean. Aztarnekin aurrera jarraitzen zuten baina ez zegoen Julianen arrastorik. Orduantxe jabetu nintzen ez nekiela ez non bizi zen, ez eta bere telefono zenbakia zein zen ere. Aztarna salatietan jarri nuen itxaropen guztia. Ibiltzen jarraitu nuen, ordu laurden batez edo, burua ezertarako jaso gabe ez ote nuen bestela Julianen arrastoa galduko. Aztarnak desagertu zirenerarte. Hilerrian nengoan eta begirada azken bi aztarnetan nuen iltzatua, atzerabiderik erakusten ez zuten aztarna umezurtzetan. Beñardo Kortajarena zioen marmolezko harlauza gupidarik gabe altxatzen zen zurtasun zuloz gain. Eta trahizioa norbere buruan dagoenean baina gauza mingarriagorik ez dagoela ikasi nuen atzo, eta, oraindik negar egiten dut. Eta batzuetan